



Kultur etxea beteta herriko gaztetxoek maitasunez prestatutako antzerkiak ikusteko.

## Antzezlan ugari

Larunbatean atzeratutako desfilea gaur, ostirala 18:30etik aurrera egingo da herriko kaleetan zehar

Larunbateko *Dantzaz blai!* emanaldia eta gero, astean zehar gaztetxoek eta antzerkiaren txanda izan da Antzerki eta Dantza Astearen 8. edizio honetan. Goizetan, ikasleak izan dira maila ezberdinetako gaztetxoek eskainitako saio ikustera hurbildu direnak. Eta arratsaldean, berriz, gurasoak izan dira aretoa bete dutenak. Lasarte-Oria artista herria dela ezin ukatu. •



### Jardunaldi erabakiorra

Ostadarreko Erregional Gorenak eta Texas-Lasartearra taldeko erregionalak asteberu erabakiorra dute. Batak Ohorezko mailarako igoera du jokoan eta besteak kopako finalerako sarrera. Entrenatzaileekin hitz egin dugu taldeak nola dauden jakiteko. /5

### Punto Radio irratia herrian

Juan Mari Mañeroren *Protagonistas Gipuzkoa* eta Tito Irazustaren *Deporte y punto* irratia saioek egin ziren atzo Lasarte-Oriatik. Ama Brigitarren komentu aurrean jarri zen Punto Radio irratiko kamioia eta bertan egon zen eguerditik arratsaldeko 14:00ak arte. Herriar ugari hurbildu zen Juan Mari Mañeroren saioa ikustera. Honetan, Jone Altunak kultura zinegotziak Antton Merzero zinegilearen omenezko museoari buruz hitz egin zuen eta ostean, herriarrek Jesus Zaballor alkateari galderak egiteko aukera izan zuten. •



Udal Musika eskolako irakasle eta ikasleak ere egon ziren Mañeroren irratia saioa girotzen.

### GIZARTEA /3

Zaporeen azoka eta artisautza igandera arte Andatza plazan

### GIZARTEA /4

Udala eta auzo elkarteak Ospitaleetarako autobusarekin ez daude ados

### KIROLA /6

Herriko Areto-Futboleko finalak bihar kiroldegian

## Salesianos Urnieta Salesiarrak FORMACIÓN PROFESIONAL LANBIDE HEZIKETA

Diseinu grafikoa, Inprimaketa, Mekanika, Elektrizitatea, Elektronika  
Diseño Gráfico, Impresión, Mecánica, Electricidad, Electrónica

maiatzak 29, 10:00-13:00  
29 de mayo, 10:00-13:00

www.salesianosurnieta.com

giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...



ikastetxea ikusteko aukera  
puertas abiertas



**Neure kabuz**



**Lehenengo jaunartzeak**

Pasa berri dira, aurten ere, lehenengo jaunartzea deituriko ekitaldiak, gure parroki elizetan, baita hemen Lasarte-Orian ere. Ohitura handiko jaia da honako hau, baina ez da zaharra. Garai batean, kristauak, pertsona heldu zirelarik eta beren erabakiz, eliztar izaten ziren eta bataioa hartzen zuten horren erakusgarri. Bataioa, besteak beste, elizkidetzaren seinalea bai da eta aurreneko sakramentua (kristau bizitzaren erakusgarria). Helduak bataioarekin batera hartzen zituzten Sendotza eta Komunioa, horrela hiru ikur horien bidez adieraziz, kristautzat zetela beren burua. Kristau Sarbideko sakramentuek deitzen diegu, oraindik ere.

Gauzak, denboraren eta historiaren arabera, aldatzen joan dira. Egia da, gure arteko antolamenduan ere, badirela aukera ezberdinak, baina normalki, denok, berdintsu egiten ditugu gauza hauek. Umeak txikitzen Bataiatu, haurrei lehenengo Konfesioa egin, Komunioa eman eta gazteekin, Sendotza edo Konfirmazioa, gero Ezkontza, Apaizgintza... eta dena, kristau bizitzaren aitormen eta konpromezu bezala. Benetakoa den? Egiaz eгина? Inolako etorkizunik duen?

Gure artean, Lasarte-Oria bertan, eta beste herri gehienetan bezala, bataiatzen diren haurrak, erdira ez dira iristen (% 46). Hori bai, Lehen Jaunartzea bataiatutako haur horiek guztiak egiten dute (%100) eta tarteka, bataioa hartu gabeko gutxi batzuk azaltzen dira. Datoak hauek dira eta ongi dago ezagutzea eta erreallitate horren azterketa bidean jartzea: zer adierazi dezakeen, zer nolako jokarakerak garatzen ari garen, zer heziara mota eskaintzen dugun, e.a.

Aukerak aukera, hemen lehen eta orain, egin beharrekoa zera da, bakoitzak, zentzu, gogo eta asmorik onenarekin, gure umeak saindu, hazi eta hesi, horretarako behar diren erantzukizunak hartuz.

**Xabier Andonegi**

**Zorion-agurrak**



**Iker eta Nora**

Zorionak bikote! Muxu handi bat gurasoen eta aitona-amonen partetik.



**Eider**

Zorionak eta zazpi muxu handi, aitaxo, amatxo eta familiaren partetik.



**Amaia**

Zorionak gure etxeko printzesari. Beñat, Irati, amatxo eta aitaxoren partetik.



**Eneko**

Zorionak I. urtebetetzean! Ondo pasa eta txokomarrubizko muxu erraldoia. Familia.



**Alex**

Zorionak Johnny!! Urte askotarako Charlieren hiru aingeruen partez.



**Nerea**

Zorionak gure etxeko Sirenita! Aitaxo, amatxo eta Gabiren partetik. Muxuak!



**Oier eta Julen**

Zorionak Oier eta Julen. Muxu potola bana zuen familiaren partetik.



**Eider**

Zorionak! 15 muxu Aitor eta gurasoen partetik; hauei ere zorionak 18. urteurrenean.



**Maite**

Zorionak! Zure ipotx guztien partetik!



**Aita-ama, aitona-amon**

Zorionak eta eskerrakasko zuen 50 urte hauengatik.

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Etxe bat saltzen da Alesancon (Ezcarayren ondoan) lorategiarekin, igerileku eta gune komunak. Telefonoa 676 910 566.

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Bero-gailua eta armairu enpotratuak ditu. Tel.: 695 785 153.

• Apartamentua alokatzen dut ekainetik aurrera Cala de Finestrat herrian. 2 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea ditu. Urbanizazioak igerilekua eta paddel pista ditu. Tel.: 667 731 456.

• Garaje plaza bat alokatzen da Mutiozabal kalean. Harremanetarako zenbakia, 629 661 316.

• Logela bat alokatzen da, pisu partekatuan Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsua eta ez-erretzailea bilatzen da. 250 euro gehi gastuak. Harremanetarako telefonoa: 686 932 714.

**Salerosketak**

• Lan bila nabil etxerik etxe erizain laguntzaile moduan, edo atezain gisa... Esperientzi luzearekin.

**Oharrak jartzeko:**

txintzarri@txintzarri.info • www.txintzarri.iragarkilaburak.com • Tel.: 943 366858

**Guardiak**

**Astelehena, 24**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Asteartea, 25**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Asteazkena, 26**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Osteguna, 27**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Ostirala, 21**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Larunbata, 22**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Igandea, 23**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Jaiotzak**

Nora Toribio  
Iglesias,  
maiatzaren 13an  
Alex Corchuelo Caballero,  
maiatzaren 11ean  
Jon Ander Estrada Baca,  
maiatzaren 2an

**Heriotzak**

Martina Bravo Jimenez,  
maiatzaren 15ean  
77 urte zituela  
Patricio Madoz Beguiristain,  
maiatzaren 14ean 74 urte zituela

**Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@itakun.com • Publizitatea: publikizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintzarrirek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Atzo hasiera eman zitzaion azoka berezi honi. Arratsaldean, haurrentzako disko festa egin zen, ederki gozatu zuten.

KIROLA

Body Pump saioak Kirolegian

Kirolen Udal zerbitzuak, datorren ostiraletik aurrera, maiatzak 21etik aurrera, eta kurtoa bukaera bitartean, 19:15etik 20:15era kirol instalazioetako bazkideentzat Body Pump izeneko kirol jardueraren saioak eskainiko ditu Udal Kirolegiko gimnasia aretoan.

Body pump jarduera indarra, giharren erresistentzia eta, orokorrean, gorputzaren prestakuntza fisikoa modu dibertigarrian lantzeko lagungarria den teknika bat da. Ariketak pisuen edo mankuernen laguntzan oinarrituta daude, gaur egungo musika doinuen erritmoarekin.

Kirol instalazioetako bazkidea izanik saio hauetan parte hartzeko interesa dutenek, aldeaz aurretik, izena eman beharko dute Kirolegian. Saioak bazkideentzat doan izango dira ostiralero 19:15etatik 20:15etara. •

Errugbyaz gozatzu

Lehenengo larunbatean, maiatzaren 15ean, Gipuzkoako Errugby federakuntzaren 50 urteurrena ospatzeko, Kontxako hondartzan torneo bat antolatu zen.

Talde ezberdinak benjamin, alebin eta infantil mailako ehun bat neska mutilak egon ziren bertan lehia, hala nola, Hernani, Atletico San Sebastian, Eibar, Bera Bera edo Aparejadores de Burgos. Lasarte-Oriako Beltzak-Ostadar Errugby eskolako 30 jokalarire bertan egon ziren.

Eguraldi kaxkara egin zuen arren, neska mutil guztiek honi aurre egin eta partidatan ederki borrokatu ziren. Taldeko ardura-dunek azaldu digutenez, "denek oso ondo pasa zuten eta esperientzi polita izan zen." •



Beltzak-Ostadarreko gaztetxoak ederki ibili ziren Kontxako hondartzan.

MUSIKA ESKOLA

Aurrematrikula garaia gaur bukatzen da

Etexeko txikitik hasi eta helduenera, Lasarte-Oriako Musika Eskolak adin guztietarako eskaintza aurkezten du, txokoak, hastapena, musika hizkuntza, helduen taldea...

Honela, aurrematrikula egiteko epea gaur bukatzen da. Interesatuak, Manuel Lekuona kultur etxean bigarren solairuan, 9:00etatik 13:00etara joan behar dute.

Honetaz gain, Lasarte-Oriako Udalak jakin-arazten du, derri-gorrezkoa dela aurrematrikula egitea plaza izateko. •

ERAKUSKETA

Gipuzkoako paisaiak ikusgai

Donostiako kaleak edo portua, Pasaiaiko portua, Zubietako pilotalekua, paisaia elurtuak edo Lasarte-Oriako hainbat txoko ere ikusi ahal dira asteartean ireki zen Miguel Angel Fernandez margolariaren erakusketan.

Ez da lehenengo aldia herrian erakusketa egiten duena eta beste erakusketen antzera kolorez betetako olio margoz egindako lanak aurkezten ditu.

Margo erakusketak maiatzaren 28ra arte egongo da Manuel Lekuona Kultur etxeko erakusketa aretoan, 18.00etatik 21:00etara. •

Zapore eta Artisautza azoka Andatza Plazan

Lasarte-Oriako Andatza Plazan Zapore eta Artisautza azoka izango dugu ikusgai egun hauetan. Gipuzkoako beste herri batzuk bisitatu ostean, orain Lasarte-Oriaren txanda dugu.

Egurrezko irudiak, larrugintza, bitxiak, olibondoko egurrez egindako lanak, Errioxako eta Nafarroako kontserbak, euskal ogia eta goxoak, Gaztelako hestekiak, Kantauriko kontserbak eta Galiziako olagarrotegia ditugu Andatza plazan dauden 22 postuetan.

Gainera, zartaginak, eskularru ekologikoak nola erabili behar diren azalduko dute eta, noski, hauek ere salgai egongo dira.

Jarduera ugari

Gaua, arratsaldeko 19:00etan

muskuluen dastatzea dago azokara bertaratzen diren guztientzat.

Baina hau ez da proposatuko diguten aukera bakarra.

Larunbatean, eguerdiko 13:00etan babarrun goxo batzuk dastatzeko gonbitea luzatzen du antolakuntzak. Gainera hau ere, dohainekoa izango da. Beraz, babarrun jale amorratua baldin bazara, ez galdu aukera.

Dastatutako produktu hauen kalitatea gustukoa izan baduzu, produktu horiek berak, zapore eta artisautza azokan eskuratzeko aukera izango duzu.

Dantza eta giro ederra

Montajes y Servicios JC2000 enpresak, Udalaren laguntzaz, antolatutako azoka bere-

zi hau atzo goizean jarri zen martxan, eta hasiera indartsu batekin gainera.

Arratsaldeko 17:00etan, herriko gaztetxoek dantzan jarri zituzten. Mota eta erritmo ugariak musika, gaztetxoek gorpuzak astintzeko.

Eta bitartean, eguraldi paregabeaz gozatzu, gurasoek azokako postuetan produktuz lasai ikusteko beta izan zuten.

Ordutegia

Igandera arte, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00ak arte, Andatza jarritako postuetatik pasa eta eskaintzen dituzten produktuak ezagutu eta erosteko aukera dago. Asteburuko plan ederra azokak eskaintzen duena. •

Zor ekologikoa aztertzen

Jende gutxi samar bildu zen Zor ekologikoari buruzko Ekozinemaldiaren hastapenetan. Kultur etxeko hitzaldi aretoak Coconut Revolution eta Impactos de la Forestación en Uruguay filmeak hartu zituen. Proiektzioak amaitu eta bertaratuakekin solasaldi aberatsa izan zuten antolatzaileak.

Astelehenean hasi zen Ekologistak Martxan proposatutako zinemaldia. Ekologiaren inguruko gaiak dituzte aztergai Lasarte-Oriaren hiru egun ezberdinetan botako diren filmeek.

Aurtengoa Ekozinemaldiaren laugarren edizioa dugu, baina lehenengo aldiz dago Lasarte-Oriaren ikusgai.

Astelehenean, arratsaldeko 19:00etan kultur etxetik pasaterik izan ez dutenek, eta gai



Beste lurraldeen ekologia egoera harakatzeko zinema saioa izan genuen

hau gogoko dutenek, astelehenean, maiatzaren 24an izango dute aukera. Oraingoan, Tierra bajo corriente eta Clima de la esperanza izango dira proiektu

tatu diren filmak. Eta maiatzaren 31an Cone el agua al cuello, R.I.P, sol contrajunta 2007 eta Quiero ser tortilla filmak egongo dira ikusgai. •

# Lasarte-Oriako erakundeak ez daude ados Ospitaleetarako autobusarekin

■ Herrian geltoki bakarra dago eta autobusak hogeita plaza besterik ez dauzka

Astelehenetik Lasarte-Oriako herritarrek Ospitaleetara joateko autobusa dute. Hainbeste urteetan zerbitzu honen zain egon ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobusa jarri du martxan. Tamalez, zazpi urte hauetan, herriko auzo elkarteek egindako eskaerak ez dituzte kontuan izan eta, Udalarekin batera, proposamen berria aurkeztu dute.

TXINTXARRI

Zazpi urteetako eskaeren ostean, auzo elkarteek ospitaleetarako autobusa jartzea lortu dute. Joan den astelehenean, maiatzaren 17an, Lasarte-Oria eta Ospitaleak lotuko dituen autobus-linea martxan jarri zen eta herritar ugari ikusi ditugu egun hauetan geltokian autobusaren zain.

Hala eta guztiz ere, auzo elkarteak ez daude ados ezarritako Gipuzkoako Foru Aldundiak ibilbidearekin, ezta autobusaren tamainarekin ere. Eta Udalak hauekin bat egin du.

## Udalaren erantzuna

Honela, Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak bere desadostasuna azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarri duen ibilbidearekin. Izan ere, Jesus Maria Zaballok alkatearen ustez, "ez du Udalak espero zuena betetzen, ezta udalerraren eta bizilagun elkarten aldarrikapenak ere."

Alkateak eskutitza bidali dio dagoeneko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa-ko diputatuari, Arantza Tapiari, proposamen berri batekin, guztiz posiblea eta hiritarren eskakizunekin bat datorrena.

## Proposamen berria

Udalak autobusa udalerrian Hipodromoko zubitik sartzen denez, Donostia Etorbiderantz joan beharrean, Tajamarreko errotondan hegoaldera hartzea proposatzen du.

Honela, herria zeharkatuko luke autobusak honako geldialdi hauek eginez: Kale Nagusian, Erretiratuen Elkartean, Txarteleteko errotondan, Basaundi Bailaran eta Karmengo kaperan.

Modu honetan, autobusak N-1 errepidea hartuko luke Orikan Ospitaleetara zuzenean joateko.

Alkatearen hitzetan, "teknikoki posiblea dela uste dugu, ez dela gehiegi eskatzea, kontuan hartuta Andoain, Urnieta eta Hernani Ospitaleekin lotzen dituen lineak sei gel-



Astelehenean jarri zen martxan Ospitaleetarako autobus zerbitzua eta herritar ugari erabili dute egun hauetan.

dialdi egiten dituela udalerririk bakoitzean, hiriko lineatza hartzen ez bada ere".

"Gure ustez, Lasarte-Oria bezalako udalerririk gabe gera daitezke," azaldu du alkateak. Zaballosen ustez, "plaza gutxi dira ia 25.000 biztanleko batzuk biztanleria gutxiago dute" aipatu du alkateak.

## Tamainarekin ere ados ez

Horrez gain, alkatetzak autobusaren tamaina edo edukierarekin ere desadostasuna azaldu du.

"20 plazarekin posible da autobusa Lasarte-Oriara iristean beteta edo ia beteta egotea. Eta nahiz eta zain egon, gure bizilagunak zerbitzurik gabe gera daitezke," azaldu du alkateak.

Zaballosen ustez, "plaza gutxi dira ia 25.000 biztanleko batzuk biztanleria gutxiago dute" aipatu du alkateak.

Era berean, Joxe Usabiagak Lasarte-Oria auzo elkarte-kideak adierazi digunez, "Urnietara zegoen autobusak arrakasta handia izan ez delaz baliatu dira eta ibilbide

horretan zegoen autobusak egingo du ospitaleetarako bidea."

Hori guztia dela eta, Lasarte-Oriako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu dio autobus-linea honen baldintzei buruz beriz ere hausnartzeko eta Udalaren eta hiritarren eskakizunei erantzuteko.

Izan ere, Usabiaga Lasarte-Oria auzo elkarte-kideak azaldu digunez, "proposamen hau onartu arte ez gara geldituko" eta ekainaren 1an Foru Aldundiarekin bilera dutela ere aurreratu digu. •



Neska kadeteak eta entrenatzaileak oso pozik zeuden Federazioko arduradunek kopa eman ostean. Arg.: Isa F. de Agirre

## Ostadarreko kadete neskek Kopako txapelkunak

Nahiz eta fase honetako partidak bat geratu oraindik, emakumezkoen KDT F-11ko neskek kopako txapelkun dira.

Lehenengo larunbatean, Michelingo kirol gunean, Gorengo Erregionalen partidaren atsedendian, Gipuzkoako federazioko arduradunek taldeari kopa eman zioten.

Kopako lehiaketan indarrarekin hasi ziren Iñaki Aristondo eta Javi Solchagaren taldea. Pixkanaka puntuak lortu eta egun bigarrenarekin bederatzirako puntuko errenta dute.

## Hurrengo denboraldia

Era berean, Ostadar K. F.a

hurrengo denboraldia prestatzen hasi da.

Horregatik, futboleko jolastu nahi duten herriko neska guztiei, 1994. urtea baino lehen jaiotako nesketatik 1997. urtean jaiotako arte, deialdia ekiten die talde ezberdinetan parte hartzeko.

Astelehenean hasi zen izena emate epea eta maiatzaren 28ra arte egongo da zabalik.

Ostadarreko egoitzan, Geltoki kalea 25 zenbakian, eman dezakete izena interesatuak dauden neskek, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. •

# Norgehiagoka garrantzitsuak

- Ostadarrekoek bihar Ohorezko Mailara igotzeko pausu garrantzitsua emateko aukera dute
- Zumaira joateko autobusa antolatu dute, Michelinen 15:30ean 5 euroren truke
- Texas-Lasartearra taldeak larunbatean kopako finalerako txartela lortu dezakete

## Joxean Beldarrain Ostadarreko entrenatzailea

Ostadarrek denboraldi bikaina egin du aurtengoan. Kategoria berria ezagutzeko gogoekin hasi eta orain Ohorezko Mailara igotzeko pausu batera dago herriko taldea. Euren kategoriako taldean bigarren geratu eta orain igotzeko beste aukera bat dute. Zumaikren aurka dute azken aukera. Bihar lehenengo buelta, Zumaian. Eta hemendik bi astetara, Michelinen partida erabakigarria izango da. Urte emankorra izan dutela behintzat ezin ukatu.



Ostadarreko Erregionala Ohorezko Mailara igotzen den ala ez hurrengo bi jardunaldietan erabakiko da

**A**rratsaldeko 17:00etan, Aita Mari zelaian, Zumaian, Zumaikoren aurka jokatuko du Ostadarrek norgehiagoka. Lehenengo bueltan ahalik eta markagailu hoberekin bueltatzea dute helburu, eta hemendik 15 egunetara, Ohorezko Mailarako pasea Michelinen lortu eta herrian bertan ospatzea.

### Nola ikusten duzu partida?

Oso partida parekatua izango da larunbatean jokatuko duguna.

Zenbakiak ikusita Zumaiko, gu baino hobeto ibili da ligan. Guk 56 puntu egin ditugu eta haiek 67, normalean lortu duten puntuazioarekin iguera ziurtatua zuten.

Gu bezala hasi ziren, gogor eta lehenengo postuan, eta azkenean, gure antzera, bigarren amaitu dute.

Gure informeeek erakutsi digute defentsan oso talde sendoa dela, baina gol gutxi sartzen dituztela. Beraz, gure helburua golik ez jasotzea izango da.

### Nola ikusten duzu taldea?

Animo askorekin. Ezin dugu ahaztu pasa den urtean igo ginela, eta orain, Ohorezko Mailara igotzeko bi partida erabakigarriak ditugula.

Hala ere, denboraldi bikaina egin dugula ezin da ahantzi. Normalean, igotzen diren taldeen %90a, denboraldia amaitu eta jaitsiera postuetan aurkitzen dira, gure egoera ez da normala beraz. Eta honen guztiaren gako, Ostadar K.F. egindako lanean aurkitzen da.

### Energia guztiak Michelinen jokatuko den itzulirako gordeko dituzue?

Bai. Aipatu bezala, larunbatean golik ez jasotzen saiatuko gara. Eta hemendik bi astetara Michelinen jokatuko dugun partidan gogor aterako gara.

Igoera Michelinen lortzen badugu, izugarria izango da. Lortu ezean ere, egindako denboraldi bikaina ospatuko dugu. •

## Koldo Ageitos Texas-Lasartearrako entrenatzailea

Texas-Lasartearra gogotsu dabil denboraldiaren azken txanpa honetan. Ligan goierako fasetik kanpo geratu bazen ere, oraindik erronka handia zuten, Kopa Lasarte-Oriako geratzea. Hiru urte daramate Kopan finalurrekoan kanporatuak izaten, baina aurtengo, beraien urtea da. Bihar, Dunboa-Eguzki F.C. taldearen aurka finalerako pasea lortu dezakete. Aurten bai, Kopa herrian geratuko denarekin ilusionaturik dago taldea.

**I**goera postuetatik kanpo geratzea ez du zertan talde baten motibazioa jaitsi behar, eta horren isla da Texas-Lasartearra. Orain, helburu zehatza dute, aurten Kopa Lasarte-Oriako ekaritzea. Bihar, arratsaldeko 17:15ean Dunboaren kontra jokatuko du Michelinen, etxean, zaleen babesean.

### Nola ikusten duzu partidua?

Printzipioz ondo ikusten dut, aukerekin. Oso ondo ibili gara fase honetako bigarren bueltan, partida guztiak irabazi ditugu, bat izan ezik, berdinketa lortu genuela. Beraz, esperantza askorekin gaude. Izan ere, aurten dugun helburua kopa Texas-Lasartearrarentzat izatea da.

Azken hiru urteetan finalaren atean geratu gara, eta aurten hori berriro horrela ez izatea dugu amets. Esperantzarekin gaude, eta Kopa irabaztea egin dugun denboraldiari amaiera paregabea ematea litzateke. Beraz, gogor arituko gara larunbatean.

### Nola ikusten duzu Dunboa F.C.?

Gu indartsuagoa gaude. Baina, Dunboak beste talde bat dauka goiko mailetan eta seguraski talde horretatik futbolariak jaitsiko dituzte.

Talde oso ona da Dunboa, baina zortez etxean erabakiko da finalerako pasea, eta horretan abantaila izango dugu, gure publikoa inguruan izango dugulako. Guk gure jokoa egingo dugu, gure eskutan dagoen guztia egingo dugu Kopa Lasarte-Oriako geratzeko.

### Nola ikusten dituzu jokalariek?

Gogo handiekin, izugarriekin. Urtarrilean igoera fasetik kanpo geratu ginean, jokalarien animoek behera egin zuten. Baina pixkanaka intentsitate eta motibazioa berreskuratzen hasi ziren, eta orain oso momentu onean aurkitzen dira Texas-Lasartearrako jokalariek.

Momentu hauetan gauza bat dute bakarrik buruan, Kopa aurten gurea izan behar duela. •



Texas-Lasartearrak finalean ikusi nahi du bere burua. Gogo handiz desiratzen dute herriko gazteek

## M. Berasategi

### Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

### TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a....

### KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Befiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
LASARTE-ORIA

Kiroletako oharrak

**Bola-joko eskola**

7 eta 12 urte bitarteko haurrei zuendutako bola-joko eskola antolatuta du Ostadarreko sailak.

San Pedroetako haurren bolo txapelketan izena emateko eta entrenatzen hasteko aukera ematen du honek.

Maiatzaren 22an hasita, eta ekainaren 28ra arte, larunbatero goizeko 10:00etatik 12:00etara horretarako aukera.

**Irristaketa ikastaroa**

Ostadar K. F. jakitera eman nahi du irristaketa ikastaroa, maiatzak 22ko saioan, hau da biharko saioan ordu egia ordu laurden bat aurretatuko dela Mitxelingo kiroldegiko ordu egia erkin bat egiteko, hau da, lehenengo txanda 15:45tan hasiko da eta bigarrena 17:45tan.

**Santa Ana pala txapelketa**

Santa Ana pala txapelketako antolatzaileek jakin arazten dute, maiatzaren 23an igandea izena emate epea bukatzen dela. Inskripzioa Gure etxea taberna egin behar dute bikoteek.

# ISU Leihoak eta Izkiñak jokatu dute herriko Areto futboleko finala

■ Obelix eta Goiz Argik jokatu dute kontsolazioko finala ■ Ligilako finalean, berriz, IOB H.K. eta Viña del Marren arteko norgehiagoka izango da

Larunbata honetan, arratsaldeko 16:15etik aurrera, Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen areto-futbol XXVII. txapelketa herrikoari amaiera emango zaio.

Hiru final ezberdin ikusteko aukera izango dute bihar arratsaldean kiroldegira hurbiltzen diren herritarrek.

Lehenengo finala, kontsolazio lehiaketakoa izango da, honetan Obelix eta Goiz Argi egongo dira aurrez aurre.

Ordu bat beranduago, 17:15ak aldera, ligilako finala jokatu dute IOB H.K. eta Viña del Mar taldeek.

Final handia baino lehen, Ostadarrek Auzolan eta Kiro-lari Onena sariak emango dizkiete Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei eta Santos Uribe atleta beteranoari.

Eta, 18:30ean, hasiko da Izkiña eta ISU Leihoak taldeen arteko norgehiagoka. Partida interesgarria eta gogorra ikusi ahaliko da ziurrenik, ISUK txapela defendatzen baitu.



laz, giro ederra sortu zen finalean. Aurten, ISU Leihoak Izkiña du aurrez aurre, ea finala berriro ere irabazten duen.

Partida bukatzean, trofeo banaketa egingo da. Irabazleek txapela eta ikurriña haien eskutan izan baino lehen, antolakuntzak hainbat sari emango ditu, esate baterako, finaleko jokalariei onenari, txapelketa atezain onenari edo talde garbienari.

Partida bukatzean, trofeo banaketa egingo da. Irabazleek txapela eta ikurriña haien eskutan izan baino lehen, antolakuntzak hainbat sari emango ditu, esate baterako, finaleko jokalariei onenari, txapelketa atezain onenari edo talde garbienari.

**Tabernak ordu bete gehiago zabalik**

Ostadar K. F. ko arduradunek jakin arazi nahi dute, herriko areto futboleko finalak direla eta, Udalak baimenduta, herriko tabernak gauz ordu bete gehiago irekita egongo direla. Aukera ederra beraz, partehartzaile eta jarraitzaileak ondo pasatzeko.

Ostadar K. F. ko arduradunek jakin arazi nahi dute, herriko areto futboleko finalak direla eta, Udalak baimenduta, herriko tabernak gauz ordu bete gehiago irekita egongo direla. Aukera ederra beraz, partehartzaile eta jarraitzaileak ondo pasatzeko.

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 22**

13:30ean, Ostadar - Beasain (Jubenilen Ohorezko Maila, iguera fasea) Michelinen.

15:30ean, Ostadar - Segura Goierri (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.

17:15ean, Texas Lasartearra - Dunboa-Eguzki (I. Erregionala, kopako final aurrekoa) Michelinen.

16:30ean, Orioko - Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Mendibeltz, Orio.

17:00etan, Zumaia - Ostadar (Erregional Gorena, 2. postua eskuratzeko joaneko partida) Aita Mari, Zumaian.

**Igandea 23**

10:30ean, Ostadar - Real Union (I. Kadetea, iguera fasea) Michelinen.

09:30ean, Kostkas M.B. - Ostadar (Alebinak, txapeladunen fasea) Matigoxotegi, Donostian.

12:00etan, Luberrri - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-I I, kopa) Berio, Donostian.

**FUTBOLA 7**

**Igandea 23**

09:30ean, Regatta Lounge - Spartak de Obelix (III. Maila) Urnietan.

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 22**

16:00etan, Ceramicas Nogales Zarautz - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Aritzabalde kiroldegia, Zarautzen.

**HERRIKO TXAPELKETAKO FINALAK**

**Kiroldegian**

**Larunbata 22**

**Kiroldegian**

**Kontsolazio finala**

16:15ean, Obelix-Goiz Argi

**Ligilako finala**

17:15ean, IOB H.K.-Viña del Mar

**Finala**

18:30ean, Izkiña-ISU Leihoak



**GIMNASTIKA ERRITMIKOA**

**Larunbata 22**

16:15ean, Sasoeta-Zumaburu eta Landaberriko gimnasta taldeek Udaberri Torneoako bigarren jardunaldian parte hartuko dute. Astigarragako kiroldegian.



**ATLETISMOA**

**Larunbata 22**

17:00etatik aurrera, LOKEko atletek kadete, jubenil eta junior mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Anoetako miniestadionan.

**Igandea 23**

10:30etatik aurrera, Landaberriko alebin eta infantil mailako atletek Gipuzkoako txapelketako 4. jardunaldian parte hartuko dute. Ordizian.

11:00etatik aurrera, LOKEko

atletek kadete, jubenil eta junior mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Anoetako miniestadionan.

**TXIRRINDULARITZA**

**Larunbata 22**

09:30ean, Bazpi txirrindularitza eskolako jubenilek XXVII M. Oiarzabal - A. Urkola memorialean parte hartuko dute, Anoetan.

16:30ean, Bazpi txirrindularitza eskolako gaztetxoek Urnietako Sarian parte hartuko dute, Urnietan.

**Igandea 23**

08:00etan, Ostadarreko zikloturista taldea Goizuetara eta Leitzara egingo dute irteera.

**PILOTA**

**Larunbata 22**

16:00etan, Intza I - Hondarribiko (Eskuz binaka, alebinak 2. Urtea) Andoaingo ikastola.

16:00etan, Urnieta - Intza 2 (Eskuz binaka, infantilak) Urnietan.

16:00etan, Zumaia 2 - Intza I (Eskuz binaka, infantilak) Zestean.

16:00etan, Lasarte-Oria - Donostia (Herri arteko txapelketa) Michelingo frontoian.

**SQUASHA**

**Kiroldegian, 18:00etatik aurrera Astelehena 24**

**Txapeladunen fasea**  
Kinin Calvo-Alberto Udabe  
Agustin Erkizia-Iker Cañedo

**Asteartea 25**

**Kontsolazio fasea**  
R. Mateos-J. Peña  
J.R. Urruzola-E. Hernandez

**Asteazkena 26**

**Txapeladunen fasea**  
Aitor Artola-Mikel Zugasti  
Iker Cañedo-Kinin Calvo

**Osteguna 27**

**Kontsolazio fasea**  
O. Cañedo-I. Garcia

**BOLA-JOKOA**

**Igandea 23**

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako kopa saioa du, Hernanin.

Egunero

**Erakusketa**

JUAN MARI CEREZO, herriko musikari zenaren omenez argazki erakusketa jarriko dute Lasarte-Oriako taldeek. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



**Erakusketa**

MIGUEL A. FELIPEREN lanak ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 21

**Kontzertua**

LOUISE MICHEL-en emanaldia Udalak eta Xpression taldeak duten hitzarmenaren barruan. Indie, fusion musika estiloak jorratzen ditu. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Ostirala, 28

**Kontzertua**

ARIMAZ KAMERA ORKESTRAREN emanaldia Danok Kide elkarteak antolatutako V. Musika Topaketen barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.



Ekologiari buruzko zinema zikloa kulturetxean gaur

TIERRA BAJO CORRIENTE eta ondoren CLIMATE OF HOPE (Clima de la esperanza) filmak eskainiko dira Osina elkarteak, Ekologistak Martxak taldearekin batera antolatutako EKO-ZINEMALDIAN.

MAIATZAREN 24AN, ASTELEHENA  
KULTURETXEAN 19:00ETAN

**Jam sesioa**

J. 345 TALDEA izango da gonbidatua oraingo Jam Sesioan. Talde donostiarrak jazz, swing eta funk musika estiloak jorratzen ditu. Jalgin, 23:00etan.

**Garagardo Azoka**

XIRIMI ELKARTEAN izango da Garagardo azoka maiatzaren 28an, 29an eta 30ean. Ostiralean 18:00-23:00; larunbatean 12:00-23:00etara eta igandean 12:00-19:00etan egongo da azoka zabalik. Ukondoa, saltxitxak eta hainbat gauza dastatzeko aukera.

Igandea, 30

**Dantza**

XXII. DANTZARI TXIKI eguna ospatuko da Erketz Dantza Taldeak antolatuta. Euskal Herriko hainbat dantza taldeen emanaldiak ikusgai.

Astlehena, 31

**Zinea**

CON EL AGUA AL CUELLO, R.I.P.SOL, CONTRAJUNTA 2007 eta QUERO SER TORTILLA filmak eskainiko dira Osinak antolatutako ekozinemaldian. Kulturetxean, 19:00etan.

VIII. Antzerki eta Dantza Astea

Ostirala 21

22:30ean, **EUSKARAZ**  
*Mikelenak*, Solaskideen helduen taldea  
*Hiru desio* (Perrault), Urre kuttuna Usurbilgo taldea

Astlehena 24

11:00etan eta 19:00etan  
**EUSKARAZ**  
*Masajearen ibaldia*, LH-2

Asteartea 25

11:00etan eta, 19:00etan  
**EUSKARAZ**  
*Landa Berriko izarrak*, eta *6. maila bukatu da*, LH-6  
*40 urte ta gero*, LH-1

Asteazkena 26

11:30ean, **EUSKARAZ**  
*"Dantzaz Blai"*, Dantza Garaikideko saioa

11:30ean eta 19:00etan

**EUSKARAZ**  
*Oin Kixoteren abenturak*, DBH-1 eta *Gonatan eta ero moduan*, DBH-2

Osteguna 27

11:00etan eta 19:00etan  
**EUSKARAZ**  
*Ipotxaren etxea* eta *Printze urdinaren bila*. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko taldeak.

Ostirala 28

22:30ean, **EUSKARAZ**  
*20/Klownkidetza*, helduen 1. taldea eta *A ze kuadrilla amonak eta hila* laburmetraia, helduen 2. taldea.

**Oharrak**

**Maria Auxiliadoraren omenezko meza**

Maria Auxiliadora elkarteak igandean, hilaren 23an, Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan eguerdiko 12:30ean ospatuko den mezara gonbitea luzatu nahi die herritarrei. Meza amaitutakoan bildutako guztiek pasta batzuk eta ardo hartuko dituzte Ama Birginaren omenez.

**Txakurrak lasai askatzeko parkea**

Hainbat herritarrek udalari proposamen bat luzatu diote txakurrek bere beharrik egiteko eta lasai askatu ahal izateko parke bat egokitu dezan. Horretarako herritarren sinadurak bildu behar dituzte. Interesa duzuenok Lasarte Albaitaritza klinikan, Zoomania dendan, Buenetxea tabernan eta Akeita tabernan dituzue orriak sinatzeko.

**Zabaletako festak**

Zabaletako Auzo-elkarteak ekainaren 1. astean, 2tik 6ra antolatuko ditu festak. Hauek antolatzeko asteartero, 19:30ean, Antonio Blas plazan bilera egingo dela jakinarazten du auzo elkarteak.

**Usurbilgo Lanbide Eskolaren ate irekiak**

Maiatzaren 22an Usurbilgo Lanbide Eskolak goizeko 11:00tan ate irekien jardunaldia ospatuko du. Informazio gehiago: 943364600 edo www.lhusurbil.com web atarian.

**Batxilergoko titulua**

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2009an ikasketak bukatu zutenek, batxilergo titulua jaso ditzaketela 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela N.A.ren fotokopiarrekin ere jaso daiteke.

**Errugby eskola**

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelinen. Errugby eskolako antolatzaileek Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

**Marrazketa, margo eskola**

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatutako marrazketa eta margo eskolan plazak daude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00etara.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

**Eskutitzak**

**Ez dago erdiko biderik**

Orain dela aste batzuk Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideok alkate berriarekin bilatzeko aukera izan genuen atez ateko sistemari buruz hitz egiteko. Erraustegiaren eraikuntza gainean dugula, herrian eta Gipuzkoa osoan zabor kudeaketa lehenetsi beharko litzakeela deritzogu. Alkateak hondakin kudeaketa ezberdinei buruz gutxi dakienaren irudipenarekin atera ginen bileratik, kalean aditzen diren zurrumurruak eta funtsik gabeko mito berdinek esaten zituelako eta atez atekoaren bitartez zabor bilketa hiri handietan ere egiten dela ez zekiela.

Gure osasuna eta bertoko ekonomia kolokan egonda ez dugu ulertzen gure udalaren immobilismoa. Are gutxiago udalbatzak, osoko bilkura batean, atez ateko sistema ezartzeko hartutako erabakia bertan behera uztea, "batzuek" hala eskatuta. Zeintzuk eskatuta? Tristeia litzateke erabakia zurrumurrutan, ezjakintasunean edo politikakerian oinarrituta hartzea.

Objetiboki begiratuta erraustegia saihesteko erarik hoberena zabor gutxiago ekoiztea eta ekoizten duguna ahal den neurri handiengan birziklatzea da. Horretan atez ateko sistemek, datuak mahai gainean, behin eta berriz eraginkorrenak direla demostratu egin dute -ez

Usurbilen bakarrik, baizik eta munduan zehar egiten diren jarduera ugarietan ere. Bosgarren edukiontzia, egun, erraustegia beharrezkoa egingo luke askoz organiko gutxiago jasotzen delako eta beste materialen birziklapena hobetzen saiatzen ez delako.

Jesus, herri honek ez du erraustegirik nahi. Nola esan behar dugu? Ez dira nahikoak 8.000 sinadurak? Ez al da nahikoa herriak egin zuen manifestazio erraldoia? Ez al da nahikoa udalak egindako inkestaren emaitzetan %81,5ak erraustegia zubietan ez dugula nahi agertzea eta % 48,5ak ez dugula nahi ez Zubietan eta ez inon? Zer-bait egin beharko duzue

ezta? Ez dezagun gure burua engainatu: ondo eta eragin-kortasunez birziklatzen dugu edo erraustegia daukagu. Ezin da esan ez dugula erraustegia nahi eta gero beharrezkoa egin. Hautatu egin behar da, ez dago erdiko biderik. Eta faborez, Jesus, erabakia hartzeko ziurtasunik ez baduzue, informazio gehiago behar baduzue, moratoriarekin bat egin, lasaitasunez irtenbide arduratsuenak aukera dezazuen. Egin dezagun atez atekoa eta beste erremediorekin ez balego, beti egongo litzateke inork nahi ez duen mamu kutsatzaile hori eraikitzeko denbora.

Lasarte-Oria Bizirik!

# Solaskideak eta antzerki zaleak

■ Alex Tellok zuzendutako Solaskide talde hasi berria 8. Antzerki eta Dantza Astean arituko da gaur, 22:30ean ■ *Mikelenak* antzezlanaren taularatuko dute Manuel Lekuona kultur etxean

Ikasteko era ezberdinak daudela erakusten digu, gaur gauean, 22:30ak aldera, 8. Antzerki eta Dantza Astean parte hartzen duen taldeak. Izan ere, aurten euskaldun berriak eta zaharrak elkartu dira talde honetan, gozatzeko eta antzezten ikasteko. Alex Telloren zuzendaritzapean, *Mikelenak* lana prestatu dute eta kultur etxera hurbiltzen diren guztiei ikasi dutena erakutsiko diete. Baina Solaskideko helduen taldea baino lehen, Usurbilgo Urre kuttuna taldeak Perrault-en *Hiru desio* eskainiko dute.

Nerea EIZAGIRRE

Takuneko Solaskide programan hainbat antzerki zale zeudela ikusirik, Lasarte-Oriako antzerki eta dantza eskolarekin hitz egin zuten talde bat antolatzeke.

Ekimena aurrera eraman, irakaslea bilatu, Alex Tello, eta aurten egin du bere lehenengo ikasturtea.

Euskaldun berriak eta zaharrak nahastu dituen taldea dugu, beraz. Haiek Jon, Kontxu, Gerardo, Sole Ainhoa, Make, Nahia, Gloria eta Aitziber dira.

Baina horretaz gain, ares-tian aipatu bezala, antzerki zaleak ere badira eta, gaur gauean antzezleak izango dira. Manuel Lekuona kultur etxeko taula gainean, Alex Telloren zuzendaritzapean prestatutako *Mikelenak* lana eskainiko dute.

Solaskide taldearen azken aurreko entsegura hurbildu ginen eta Alex Tellok, taldeko irakasleak, antzezlanari azken ukituak nola ematen zizkion ikusi ahal izan genuen, baita Solaskide taldeak egiten duen lana ere.

Saioa amaitzean haiekin hitz egiteko aukera izan genuen.

## Euskara eta harremanak

Solaskideko antzerki taldean zergatik parte hartzen duten galdetzean, "beste gauza bat egiteko. Ez bakarrik euskara liburuetatik ikasteko," erantzun digu Makek.

Antzerki lanari buruz galdetzean, Aitziberrek azaltzen digunez, "gure helburua ez da kristoren antzerkia egitea, ondo pasatzea eta euskaraz egitea da."

Eta, "daramagun bizitza honetan batzuk egun batzue-



Aretoan entzungo den musikarekin zer ikusi duten pasarte ezberdinak antzeztuko dituzte Solaskide berezi hauek.

tan ezin dute besteak bestee-tan. Eta zailtasunak izan ditugu. Azken antzerki honi ez diogu honelako garrantzia ematen. Badauka bere garrantzia eta urduri gaude, baina garrantzitsuena ondo pasatzea da," azpimarratzen du.

Kontxuk ere talde honetan antzerkiaren gain, harremanak eta giroak garrantzi duela adierazi du, "emaitza oso polita da. Denok nahi dugu zerbait erakutsi edo erakusteko eskatzen digute. Baina polite-

na da, gure artean sortzen den giroa eta harremanak."

Eta jarraian, "oso aberatsa da ere Lasarte-Oria batean horrelako aukera izatea euskaldun berriak, zein zaharrak biltzekoa. Nik orain taldeko beste norbaitekin hitz egin behar baldin badut, ni euskaraz zuzenduko naiz. Haien-tzako ere erreferentzia da eta zein pertsonekin euskaraz hitz egin dezaketen badakite. Nire ustez talde hau oso garrantzitsua izan da, gure harremana horrela posible dela jakiteko eta betirako euskaraz egiteko," aipatu digu.

## Antzerkia

Guztiak euskaldun berriak, zein zaharrak gogor egin dute lan *Mikelenak* antzezlanaren aurrera ateratzeko. Izan ere, gehienek ez dute inoiz antzerkirik egin.

Gerardok ikasturte hasieran ariketak egin zituztela azaldu digu eta Aitziberrek "jolasten pasatzen genituen orduak," aipatu digu.

Izan ere, "Lan berria ikasten eta ahalik eta ondoen egiten saiatzen zara," azaldu digu Jonek.

Hala ere, benetako lana duela gutxi hasi dutela onartu dute.

"Inauterietan gauza txiki bat egin genuen eta orain hau. Ez bata eta ez besteak ez dute testu handirik. Testua baino gehiago egoera landu behar izan dugu," esan digu Solek.

"Gehiena inprobisatu dugu," adierazi du Gloriak.

Eta Solek, "guk aukeratu genituen antzerki lanean entzungo diren doinuak eta gero testua ekarri zuen Ale-xek."

"Hala ere, gure iritzia eman dugu eta proposamenak sartu ditugu," gaineratzen du Aitziberrek.

Talde lan horrek ere taldeko harremanak sendotzen lagundu du," adierazi dute.

Era honetara, talde lana dugu gaur Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan eskainiko duten *Mikelenak* lana eta denon gustukoa izatea espero dute.

Urduritasunik ez zaie nabari, baina "egunean bertan hasi baino lehen dardarka egongo gara ziurrenik," aitortu du Solek. •

“ Gure helburua ez da kriston antzenlana egitea, ondo pasatzea eta euskaraz egitea da



Banaka, bikoteka edo taldean ikasi duten guztia erakutsiko dute gaur gaueko antzezlanean.

“ Oso aberatsa da Lasarte-Oria batean horrelako aukera izatea euskaldun berriak, zein zaharrak biltzekoa